

Hartza eguna


2005

Otsailaren 4a

ostirala

18.00etan

PLAZAN



ANTOLATZAILEAK:

- Euskal Birusa
- Anaitasuna ikastola
- Kaltxango AEK Euskaltegia
- Deba Beheko Bertso Eskola
- Eskolabarri
- Ermuko Udala



"la Caixa"

HARTZ EGUNEKO KOPLAK

“Patxi Urko”ren koplak holan idatzitxa ta ezebe argitxu barik, ziurasko gehixenontzako bertso batzu besteik ez dia. Baiña eiñ ziran garaixan inportantzi haundikuak izan zian, eurei esker Ermuko gazte bat sendatu zan eta.

Istorixia oiñ dala urte asko gertau zan, 1934. urtian. Herriko gazte bat tuberkulosixak jota gaixotu zan. Orduko denporetan tuberkulosixa osatzia gatxa zan ta gaiñera diru dexente bihar zan ondo saniatzeko. Famelixiak gastuei aurre ezin zotsala eiñ jakinda, gaixuaren lagun bati bururatu jakon konponbidia: Gillermo Bengoetxea “Txindurri”ri bertso batzuk eitxeko eskatuko eutsien. Gaixuaren kuadrillakuak egun bat ipiñi eben alkartu eta kalera urtetzeko, ahal dala “kokoz” jantzitxa. Etxeko ganbara ta kuxa zaharretan arakau ostian, jantzi edozein txapiño, pintxau arpegixa ta kalera! Ez zitxuezen baiña ahaztu kitxarra, bibolin, tronpeta ta abarrok. Bertsuen arteko musikia joteko, besterik ez izateeran, orrazixak ta erretzeko papelak ebali eben: ipiñi bai bata bestiaren kontra, putz eiñ ta orrazixaren bitxartietatik soiñua etaratzen eben. Eta halantxek ba musikia joaz ta “Txindurri”ren bertsuak kantauaz, herriko atari gehixenguetan eskian jardun eben. Eta diru dexente etara gaiñera, 1000 pzta. inguru diñuenez, sasoi haretarako trongal itzela!

Gerriakin ta ondorengo urtietako sasoi estuekin kalerik-kale urtetzeko ohitxura hau galdu eiñ zan, 1989.urtian EUSKAL BIRUSAK berreskurau eban arte, Eguen Zuri bixamonian herriko baztarrak musika, dantza ta bertsoz beteaz.

Deba Barreneko Bertso Eskolako ikasliak euren omenalditxua eiñ nahi izan zotsien bertsuon sortzaile Gillermo Bengoetxea zanari ta Maria haren alabari eurok gorde ta ondorenguei erakutsi izanagaitxik. Harek hasierako lau bertsuotaz gain, beste bi gehixago kantatzen dia oiñ.

1

Patxi Urkoko etorri jakun
lengo egunian esaten
animali bat han ebilela
bazter guztiak apurtutzen
eskopetekin hara joateko
pizti hori harrapatzen
inguru hartako baserritarrak
ez ebela lorik egiten.
Hara Joan ginen aldra ederra
zer ote zan hori ikusten.

2

Baso Baltz eta Urko erreka
sastrak genduzan jorratu
balna guk ezin izan genduan
animalirik bilatu
solneko arropak apurtu arte
aurrera genduan jarraitu.
Non uste dozu adiskidia
egin genduala aurkitu?
Mañako lezan sartuta euan
hantxe egin genduan hartu.

3

Animali hau ez dakigula
dan hartza ala basurdea
basamortuan honek pasau dau
egarria eta gosia
begiratuta beronek dauka
errukarizko plantia
beroni jaten emotiarren
eskatzen dogu limosnia
erruki zaitez jende txit ona
kendu dalogun gosia.

4

Animali hau atxiki bat da
guk diru pixkat batzeko
horren kontura gaur arratsian
jan da edan ondo egiteko.
Borondaterik baldin baduzu
jendlak guri emoteko
Zure nagiak atara eizuz
dozuzen sosak askatzeko
poltsa hau bete bagoaz eta heldu
da ordua afaltzeko.

5

Maria Txindurri-ri eskerrak
gabiltza denok kantuan,
bere altatxok egin ebazan
bertsuak doguz goguan,
nahiz ta urtiak pasatu diran
haizeak ez dauz eruan,
horretarako denok batera
hasi gaitezen ba kantuan,
ia ganoraz ospatzen dogun
Hartza eguna Ermuan

6

Honenbestian amaitutzen da
aurtengo gure ekina,
ahotsa ere urratu samar
danok daukagu, jakinal,
hurrengo baten egin beharko
dogu berriz be ahalegina,
la urtero ez dan izaten
jende kopuru berdina,
ohitura zahar hau desagertzia
litzake penarik haundina

HARTZA, GIDARI ESPIRITUALA

Aspalditik du xamanismoak hartza antzeko espiritu gisa, berpizkundearen ikur gisa eta jakinduria magikoa zein sendatzeko botereak dituen izaki gisa bereganatua. Ipar Amerikako blackfoot edo oinbeltz indiarrentzat hartz-xamanak hartzaren dantzaren bidez sendatzeko botere handia erabiltzen du. Dantza horretan xamanak hartz-larrua janzten du eta hartzaren orro eta mugimenduak imitatzen ditu. Lantza mistikoa darama eta besoetatik zintzilik hartzaren erpe indartsuak dituela, xamanak grizzli hartzak bezala orroa egiten du eta ongiaren zein gaizkiaren espirituei kantatzen die. Hartzak harrapakinak tratatzeko era antzezten du, gaixoa lurrean erabiltzen du eta eskuaz kolpetxoak jotzen dizkio gaitza uxatzeko.



Argazkian Uintah-ko erreserbako indiarrek Hartzaren Dantzan parte hartzen.

INUITEN INIZIAZIOA

Inuiten sinesteetan gizakiek eta hartzek duten harreman estua gazteen inimizia-erritoetan animalia horrek duen lekuak erakusten du. Gizona izateak ehiztari izatea esan nahi du eta kategoria horretara iristeko behar diren ezaugarriak hartz zuriaren espirituaren bidez lortzen dira. Artasunaren froga erabakitzailea etsai beldurgarri eta errespetatuena hiltzea da. Animalia sakratua denez gero, hiltzearen eta larrutzearen inguruan erritoen bidez arretaz ibili behar da. Gaztearen aitak hartzaren espirituari kantatzen dio semea beti ehiztari ona izango dela segurtatzeko.